

ESKOLA GARRAIOAREN GELTOKIAK KUDEATZEKO IRIZPIDEAK

Ikastolako garraioaren kudeaketa kontu konplexua, aldakorra, garestia eta garrantzi handikoa da familientzat.

Garraioa kudeatu behar da, guztion interesak bakoitzaren interesaren gainetik jarrita, eta hainbat irizpide kontuan hartuta: kalitatea (ibilbide-denborak murriztea); geltokietako segurtasuna, eta eraginkortasuna (ahalik eta kosturik txikiena).

1. Geltokiak non jarri erabakitzeako irizpideak

Geltoki berri bat non jarri erabakitzeako, orain arte aipatu ditugun gauza GUZTIAK hartu beharko dira aintzat. Hau da:

- Gehieneko garraio-denbora (autobusa zirkulazioan dabilen denbora; ez da kontuan hartzen geltoki bakoitzean ikasleek zain ematen duten denbora). Ibilbideak gehienez 40 minutukoak izanen dira Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta 45-60 minutukoak, Bigarren Hezkuntzan. Ibilbideen iraupena zenbatzen da lehen geltokitik ibilbidea bukatzen den arte, hau da, Ikastolara iritsi arte.
- Eskatzen den geltoki bakoitzean, gutxienez 4 haur izanen dira, eta kopurua handitzeko joerarekin.
- Erabiltzaileen adinak hartuko dira kontuan; adin txikienekoei lehentasuna emanda.
- Gehieneko garraio-denbora gainditzen ez badu ere, ez du zerbitzuaren kostua handitu behar.
- Geltokiek hiriko eta eskualdeko garraio publikoaren betebeharrak bete behar dituzte segurtasunari dagokionez.
- Etorkizunean asko hasi daitekeen hiri-eremua izatea.
- Bigarren Hezkuntzan, herri edo auzo mugakideetan helburua da ikasleak toki seguru batera hurbiltzea, betiere herri edo auzo horien sarreretan.

Ikasturte bakoitzean lineak berrikusi eta geltokiak berrantolatu/kenduko dira, honelako irizpideak kontuan hartuta:

- a. Ez dadila geltokirik egon
 - a.a.) 500 metrora baino gutxiagora. Haur eta Lehen Hezkuntzako ibilbideetarako.
 - a.b.) 1.000 metrora baino gutxiagora DBHko eta batxilergoko ibilbideetarako.
- b. Geltoki distantziakideen eta metaketa-puntuaren bilaketa, eremu jakin bateko etxebizitzekiko.
- c. Errepide azkarren erabilera lehenestea.
- d. Hiriguneak: geltokiak ez dira betirako, hau da, azken erabiltzailea desagertzen den arte. Geltoki berriak jarri diren bezalaxe, zerbitzuaren beharren arabera geltokiak kendu/ezabatu ahaliko dira, baldin eta 2 erabiltzaile edo gutxiago badira.
- e. Hirigunez bestelako guneak (Taxoare, Badoztain, Artika, ...). Azken erabiltzailea desagertu arte mantenduko da. Horregatik, oso zaila da geltoki berri bat sortzea hirigunea ez den gune batean.

2. Prozedura

Aurreko ikasturtearen hirugarren hiruhilekoan hasten dira planifikatzen autobus ibilbideak eta geltokiak, matrikulazioarekin batera eta matrikula berritzen denean.

Geltokiak aldatu egin daitezke, hainbat arrazoi direla medio: matrikulan izaniko aldaketak, geltoki bakoitzeko pertsona kopurua, obrak, hobekuntzak ibilbideen iraupenean, segurtasun arazoak...

Ez geltokiek, ez autobus ibilbideek, ez dira aldatu gabe ikaslearen eskola-prozesu osoan.

Lehen Hezkuntzatik Bigarrenera pasatzean, geltokiak murriztu daitezke, baldin eta arestian aipaturiko irizpideak betetzen ez badira.

Autobus ibilbideak San Fermin Ikastolatik urrutien dauden tokietan hasi eta Ikastolatik hurbilen dauden tokietan bukatu ohi dira. Abiapuntua Iruñea barruan badago, ibilbidearen iraupen laburragoa egiteko aukera ematen duen abiapuntua hautatuko da.

Geltoki berri bat sortzeko eskaera matrikula berritzeko epealdian soilik egin behar da, hau da, geltoki zerrenda ematen denetik urteroko apirilaren 30era bitarteko epean, eta honako urrats hauek beteta:

- Eskabide bat bete behar da. Eskabidea Ikastolaren webean egonen da familien eskura, bai eta geltokiak non jarri erabakitzeko irizpideen laburpen bat ere.
- Eskaera bakarra onartuko da geltoki berri bakoitzeko; hau da, geltoki berbera eskatzen duten guztiek eskabide bat aurkeztu beharko dute denen artean.
- Eskaeran, hauxe agertu beharko da:
 - ✓ Ikasle kopurua eta ikasle eskatzaileen ikasmaita.
 - ✓ Eskaeraren arrazoiak

Maiatzaren lehen hamabostaldian, Autobus Batzordea bilduko da eta zer geltoki berri onartu erabakiko du. Eta maiatzaren 31 baino lehen, familia eskatzaile guztiei erantzun zaila.